EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2023 API. ABR. 25
SARRERA/ENTRADA 2709 IRTEERA/SALIDA

| | |
|---|---|
| **Dokumentu mota / Tipo de documento:** | LEGE PROPOSAMENA<br>IRAKURKETA BAKARREKO PROZEDURA<br>OSOKO BILKURAN EZTABAIDA DADIN |
| **Nori zuzendua / Dirigido a:** | EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA |
| **Proposatzailea / Proponente:** | URRUTIA, AITOR (EA-NV)<br>ANDUEZA, ENEKO (ES-SV) |
| **Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario** | EA-NV/ES-SV |
| **Data / Fecha** | 2023.04.25 |

**Espediente zb / Nº de expediente**

**Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:**

Erreferentziako merkaturatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-bonu termikoa kudeatzeko eta ordaintzeko informazioa jakinaraztea arautzen duen lege proposamena // Proposición de Ley que regula la comunicación de información por los comercializadores de referencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la Gestión y Pago del Bono Social Térmico en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi

Behean sinatzen duten legebiltzar-taldeek lege-proposamen hau aurkeztu dute, erreferentziako merkaturatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-bonu termikoa kudeatzeko eta ordaintzeko informazioa jakinaraztea arautzen duena, IRAKURKETA BAKARREKO PROZEDURAren bidez OSOKO BILKURAN eztabaida dadin, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 163. artikuluen babesean.

ADIERAZTEN DUTE

Horregatik guztiagatik aurkezten dute erreferentziako merkaturatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Euskal Autonomia Erkidegoan

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes, presentan la siguiente Proposición de Ley que regula la comunicación de información por los comercializadores de referencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la Gestión y Pago del Bono Social Térmico en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para su debate en PLENO por el PROCEDIMIENTO DE LECTURA ÚNICA, al amparo del artículo 163 del Reglamento del Parlamento Vasco.

MANIFIESTAN

Por todo ello, presentan la siguiente Proposición de Ley que regula la comunicación de información por los comercializadores de referencia a la

gizarte-bonu termikoa kudeatzeko eta ordaintzeko informazioa jakinaraztea arautzen duen lege proposamena.

ZIOA

Gizarte-bonu termikoa kontsumitzaile kalteberen pobrezia energetikoa arintzeko laguntzak zuzenean emateko programa bat da, berokuntzarako, ur bero sanitariorako edo sukalderako energiari dagokionez, Trantsizio Energetikorako eta Kontsumitzaileen Babeserako Presako Neurrien urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuak sortua.

Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatzen da, baina laguntzak kudeatzea eta ordaintzea autonomia-erkidegoei dagokie. Ondorio horietarako, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak aurrekontu erabilgarriaren lurralde-banaketa kalkulatzen du, eta laguntzen zenbatekoak administrazio eskudunei transferitzen dizkie, ordain ditzaten.

Onuradun izango dira aurreko urteko abenduaren 31n Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2003 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako elektrizitatearen gizarte-bonuaren onuradun diren kontsumitzaileak, aipatutako Dekretuan jasotzen den bezala.

Konstituzio Auzitegiak, irailaren 23ko 134/2020 Epaian, konstituzio-kontrakotzat jo zuen, eta bertan behera utzi zituen tartekiak, honako hauen bidez: urteko ordainketa bakarra ematea 9. artikuluaren lehen apartatuan; onuradunei eta aurreko apartatuetan aurreikusitakoaren arabera dagozkien zenbatekoei buruzko informazioa

Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la Gestión y Pago del Bono Social Térmico en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

EXPOSICION MOTIVOS

Que el bono social térmico es un programa de concesión directa de ayudas destinadas a paliar la pobreza energética en consumidores vulnerables, en lo que respecta a energía destinada a calefacción, agua caliente sanitaria o cocina creado por el Real Decreto-ley 15/2018, de 5 de octubre, de medidas urgentes para la transición energética y la protección de los consumidores.

Que se financia con cargo a los Presupuestos Generales del Estado, pero la gestión y el pago de las ayudas corresponden a las Comunidades Autónomas. A estos efectos, el Ministerio para la Transición Ecológica y Reto Demográfico, calcula la distribución territorial del presupuesto disponible y transfiere los importes de las ayudas a las Administraciones competentes para su pago.

Que las personas beneficiarias del mismo serán aquellos consumidores que sean beneficiarios del bono social de electricidad previsto en el artículo 45 de la Ley 24/2003, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, a 31 de diciembre del año anterior tal y como se recoge en el citado Decreto.

Que el Tribunal Constitucional en su Sentencia 134/2020, de 23 de septiembre declaró la inconstitucionalidad y anuló los incisos " mediante la concesión de un pago único anual" del apartado primero del artículo 9; "junto con la información de los personas beneficiarias y los importes que les corresponden de acuerdo con lo previstos en

ematea, 10. artikuluaren bigarren apartatuko 11. artikuluan aipatzen den informazioa oinarri hartuta; 10. artikuluaren hirugarren apartatuko 11. artikuluan aipatzen den informazioa ematea, urteko lehen hiruhilekoan; eta 11. artikulua.

Zehazki, urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuaren 11. artikuluak aurreikusten zuen erreferentziako merkaturatzaileek gizarte-bonuaren onuradunen datu pertsonalak eman behar zizkietela, aurreko urteko abenduaren 31n, Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunari. Baina Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren aurkakotzat jo zuen, uste baitzuen eskatutako informazioaren helburua gizarte-bonu termikoaren laguntzaren zenbatekoa zehaztea eta hura ordaintzea zela, eta horrek gainditu egiten zituela Estatuak laguntzari buruz zituen ahalmenak, zuzenean lotuta baitzegoen autonomia-erkidegoen eskumenekoak diren kudeaketa-zereginekin.

Beraz, sinatzen duten legebiltzar-taldeen ustez, erantzun bizkorra eta luzamendurik gabea eman behar da, erregelamendu bidezko garapen egokia ahalbidetzeko.

Horregatik guztiagatik, komenigarria dirudi Ganberaren Erregelamenduaren 163. artikuluan ezarritako irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea, gizarte-bonu termikoa ahalik eta lasterren ordaindu ahal izateko.

Behean sinatzen duten legebiltzar-taldeek proposatzen dute, halaber, lege-proposamen hori Ganberaren Erregelamenduaren 163. artikuluaren arabera izapidetu dadila, gaiaren izaera eta formulazioaren sinpletasuna kontuan hartuta.

los apartados anteriores" y "a partir de la información que hace referencia el artículo 11" del apartado segundo del artículo 10 y " durante el primer trimestre del año" del apartado tercero del artículo 10 , así como el artículo 11.

En concreto, el artículo 11 del Real Decreto-ley 15/2018, de 5 de octubre, preveía la obligación de las comercializadores de referencia de facilitar los datos personales de los beneficiarios del bono social de electricidad, a 31 de diciembre del año anterior, al órgano competente de la Administración General del Estado. Pero el TC lo declaró inconstitucional por considerar que el fin de la información que se solicitaba era únicamente determinar el importe de la ayuda del bono social térmico y proceder a su pago, lo que excedía de las facultades estatales en relación con la ayuda., al estar directamente vinculado a las tareas de gestión que son competencia de las Comunidades Autónomas.

Los Grupos Parlamentarios suscribientes consideran, pues, que existe la necesidad de dar una respuesta ágil y sin más dilaciones que permita un desarrollo reglamentario adecuado.

Que, por todo ello, parece conveniente tramitar mediante el procedimiento de lectura única establecido en el artículo 163 del Reglamento de la Cámara a fin de poder proceder al abono del bono social térmico en el plazo de tiempo más breve posible.

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes proponen a su vez que dicha Proposición de Ley, se tramite de conformidad con el artículo 163 del Reglamento de la Cámara, a la vista de la naturaleza del asunto, así como de la simplicidad en la formulación.

JUSTIFIKAZIOA

Ikusita Konstituzio Auzitegiaren irailaren 23ko 134/2020 Epaiak 15/2018 Errege Lege Dekretuaren artikuluren bat baliogabetzen duela, besteak beste, tartekiak, onuradunen informazioa eta aurreko apartatuetan aurreikusitakoaren arabera dagozkien zenbatekoak, bai eta 10. artikuluaren bigarren apartatuaren 11. artikuluan eta 11. artikuluan aipatzen den informazioan oinarrituta dagozkienak ere.

Horregatik, beharrezkoa da lege-mailako arau bat ematea, non ezarriko baita erreferentziazko merkaturatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan elektrizitatearen gizarte-bonuaren onuradunen datu pertsonalak eman behar dituztela, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c) artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikulua betez. Gainera, lege horrek tratamenduaren arduraduna salbuetsiko luke 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 14. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako informazioa interesdunei jakinarazteko betebeharretik, erregelamendu horren bosgarren apartatuaren c) letran aurreikusitakoaren arabera.

Legearen egitura: artikulu bakarra, erreferentziako merkaturatzaileek gizarte-bonu

JUSTIFICACIÓN

Vista que la Sentencia 134/2020, de 23 de septiembre, del Tribunal Constitucional anula alguno de los artículos del Real Decreto-ley 15/2018 entre otros, los incisos "junto con la información de las personas beneficiarias y los importes que les corresponden de acuerdo con lo previstos en los apartados anteriores" y "a partir de la información que hace referencia el artículo 11" del apartado segundo del artículo 10, así como el artículo 11.

Es por ello que se hace necesario dictar una norma con rango de ley que establezca la obligación de los comercializadores de referencia de facilitar los datos personales de los beneficiarios del bono social de electricidad en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi en cumplimiento del artículo 6.1.c) del Reglamento (UE) 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de esos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y del artículo 8 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Además, dicha ley eximiría al responsable del tratamiento de la obligación de comunicar a los interesados la información prevista en los apartados 1 y 2 del artículo 14 del Reglamento (UE) 2016/679, de 27 de abril de 2016, todo ello de conformidad con lo previsto en su apartado quinto, letra c).

La Ley se estructura en un artículo único que regula la comunicación de información por las

termikoa kudeatzeko eta ordaintzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eman beharreko informazioa arautzen duena; xedapen iragankor bat, eta azken xedapena, indarrean sartzeari buruzkoa.

Artikulu bakarra. Erreferentziako merkaturatzaileen betebeharrak.

1.- Gizarte-bonu termikoaren laguntzaren zenbatekoa zehaztu eta hura ordaindu ahal izateko, erreferentziako merkaturatzaileek gizarte-zerbitzuetan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailera edo laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko eskumena duen beste organo batera bidali beharko dute, urte bakoitzeko urtarrilaren 30a baino lehen, aurreko urteko abenduaren 31n gizarte-bonu elektrikoaren onuradun izan diren EAEko bezeroen zerrenda.

2.- 1. apartatuan aipatzen den zerrendak, formatu digitalean, informatikoki erabil daitekeena eta informazio hau izan behar duena:

a) Onuradunaren izena, bi abizenak eta NANa.
b) Helbide osoa, honako hauek adierazita: bidea, zenbakia, posta-kodea eta udalerria.
c) Kalteberatasun-maila zehaztea: kontsumitzaile kaltebera larria edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dagoena
d) Banku-kontuaren datu eguneratuak
e) Telefonoa eta e-maila

Xedapen iragankor bakarra.

Salbuespen gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-bonu elektrikoaren

comercializadoras de referencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la gestión y pago del bono social térmico, una disposición transitoria y disposición final relativa a la entrada en vigor.

Artículo único. Obligaciones de los Comercializadores de Referencia.

1.- Con el único fin de poder determinar el importe de la ayuda del bono social térmico y proceder a su pago, los comercializadores de referencia deberán remitir al Departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi con competencias en materia de servicios sociales u otro órgano competente para la gestión y pago de las ayudas, antes del 30 de enero de cada año, una lista de sus clientes en la CAE que sean beneficiarios del bono social eléctrico a fecha 31 de diciembre del año anterior.

2.-El listado que se refiere el apartado 1, en formato digital, operable informáticamente y debe incluir la siguiente información:

a) Nombre, dos apellidos y DNI del beneficiario.
b) Domicilio completo, con indicación de vía, número, código postal y municipio.
c) Determinación del grado de vulnerabilidad: consumidor vulnerable severo o en riesgo de exclusión social
d) Datos de la cuenta bancaria actualizados
e) Teléfono y e-mail

Disposición transitoria única.

Excepcionalmente, la información relativa a las personas beneficiarias del bono social

onuradunei buruzko informazioa, 2021eko abenduaren 31n, lege hau indarrean jarri eta 15 eguneko epean bidali beharko diote erreferentziako merkaturatzaileek gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituen sailari.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

eléctrico de la Comunidad autónoma de Euskadi a 31 de diciembre del 2021 deberá ser remitida por las comercializadoras de referencia al Departamento con competencias en materia de servicios sociales en el plazo de 15 días la entrada en vigor de la presente ley.

Disposición final. Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco».

SV-ES

EA-NV